

STEILASBERRI honetan gaurko Mahai Sektorialeko gai nagusien berri ematen dizuegu.

Hezkuntza Departamentuak Foru Agindu batean jasoko ditu Alarma egoerak eragindako aldaketak hainbat prozesu eta epeei dagokionez:

- **EPE:** EPEa 2021ra pasatzen dela aitortzen da, ez ordea lehiaketa aldia .
- **Kontratu eta Programak betetzeko Zerbitzu Eginkizunen** deialdia bertan behera geldituko da. Aurrerantzean beste deialdi bat egitea planteatu daiteke.
- Zaintzagatik eta osasun arazoengatik Zerbitzu Eginkizunak eta jardunaldi murrizketak eskatzeko, edo eskatutakoei uko egiteko, epe bat irekiko da, funtzionario guztientzako, lekualdatze lehiaketan parte hartu dutenentzako eta parte hartu ez dutenentzako.
- **Profilen akreditazioa.** Urte osoan irekirik. Maiatzean ebatziko da. .
- **Lekualdatze Lehiaketa:** hurrengo astean behin betiko emaitzak publikatuko dituzte.
- **Zailak Betetzeko Lanpostuei** uko egitea: betiko datetan egingo da, maiatzaren lehenengo hamabostaldia.
- **Berariazko zerrenden** irekieraren behin betiko emaitzen publikazioa: hurrengo astean.
- **Ordezkapenak:** Hezkuntza Departamentuak, irizpide murriztaileekin, beharrezkoak ikusten dituztenak gauzatzen ari dira, STEILASEk berriz ere salatu duen kontua.

Lanpostuen esleipen ekitaldiak.

- Lanpostuen esleipen telematikoa
- **Gutxiengo kulturalen zein Entzumena eta Lengoaia** funtzionarioen lanpostuen esleipen telematikoa presentziala izango da. **Orientazio** lanpostuena ere hala izango dira, erreferentziatzko ikastetxeetan, Osasun Departamentuaren gomendioak kontuan hartuta.
- Behin betiko **plazaren esperoan** diren funtzionarioen esleipenak presentziala izango dira. Osasun Departamentuaren gomendioak kontuan hartuta..
- **Irakasle kontratatuen** LET masiboa ekaina amaieran edo uztaila hasieran egingo da, egungo plantilla kontuan hartuta. Balizko errefortzu eta beharrei erantzuteko baliteke abuztu/irailean LET bat egitea. STEILASEk eskatzen du lanpostu guztiak ekainean betetzea eta beharrik ez gelditzea bete gabe.

Ez erabili pandemia Hezkuntzan murrizketak egiteko



PUBLIKOA DEFENDATU